

SECCION AMENA.

ATSUA TA ISPILLUA.

IPUIÑA

Atso bekoki chimur, begi gorriya,
 Bisartsu baltz, ernegariya,
 Argal erren, larogei urtekua,
 Oi, ortz, ta agin bagakua,
 Bestetik barriz bekarrez betia,
 Urdin ta zuri egiñik ulia,
 Sur autsagaz loituirik
 Eta muskillaz koipeturik,
 Betseinetan zirudiyanak katua
 Eta bere bizarretan sagua,
 Ezin zatarrago ta ichusiago izanik,
 Ez dau nai entzun zelakua danik.
 Diño, betor ispillua,
 Ikusteko emen nere burua.
 Argiro ta zuzen dakus egiya,
 Ta diño: ¿Ispillu guzurtiya,
 Age: tu az niri barre egiteko
 Eta ez nazana ni esateko?
 Ez ago bada i ondo egiñik,
 Ez deustak erakustera niri aginik.
 ¡O guzurtiya!
 ¿Nun dok nire matralla zuriya?
 Nun azal garbi ta leuna?
 Gau egiten dok eguna,
 Bela baltza eperra,
 Ichusiten dok ederra,
 Gaztiak dozak zartuten
 Gorputz liraña makurtuten;
 Ausiko aut nik ostikopian,
 Ez az egongo nire echian.

Alan dau egitea
 Ta bere teman da geldituten.
 Ipuñian deusku esaten atsuak
Bakocha bizi dau bere zorua.

*Ez da ezagutu nai burua,
 Ez entzun egiya diñuanik,
 Ez da sinistu bere berba onik
 Ta ausi nai da ispillua.*

JOSÉ ANTONIO URIARTE.